



Buletin Informatiboa



Elikagaiak Sustatzeko Buletin Informatiboa aurkezten dizugu.

- ▶ Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak antolatutako **jarduera guztiak** agiri bakar batean.
- ▶ **Jaso ezazu** eroso-eroso, hilabete hasieran, zure posta elektronikoa...
- ▶ **Aurki itzazu** Euskal Herriko elikadura industria sustatzeko ekintzak, sektorean egindako elkarrizketak, esperientziak, datu erabilgarriak...
- ▶ **Egin bat** zure enpresarentzat interesgarri diren jarduerekin.

Elkarrizketa...

Amaia Barrena, Berrikuntza eta Elikadura Industrien zuzendaria.

Irekitako deialdiak

- ▶ ProWein 2012
- ▶ Gourmets 2012
- ▶ Alimentaria Barcelona 2012

Hurrengo azoka eta misio komertzialak

- ▶ Lehendakariaren enpresa-bisita AEBetara.
- ▶ 'Worlds of Flavor'-en babesa
- ▶ Conxemar
- ▶ Anuga
- ▶ Fruit Attraction

Egindako azoka eta misio komertzialak

- ▶ ProWein
- ▶ Gourmets
- ▶ Seafood
- ▶ Fenavin
- ▶ London Fair
- ▶ Alemaniako, Suitzako, Londresko eta Dublingo merkataritza-jarduerak.




Iradozikizunak

Zure iritzia, beharrak eta abar jakin nahi ditugu...

elikagaiensustapena@ej-gv.es

Elkarrizketa...

“Datozen urteetako sustapenak bi gako ditu: merkatuak eta ekintzen formatuak”



Amaia Barrena

Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendaria

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Zergatik sortu zen Euskadiko elikagai eta edarien sustapenari buruzko hileroko informazio-buletina sortzeko beharra?

Funtsezko ideia da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailatik Sustapenaren inguruan egiten den guztia zabaldu eta ezagutzera ematea, ikustaraztea. Administrazioetik sustatzen diren eta ezagunak diren ekimen asko dago, baina beste batzuk ez dira ezagutzen. Buletinak, halaber, sektoreak berak industriak, lankideek, lehiakideek eta abarrek egiten dutena jakiteko balioko du.

Zein informazio aurkituko du sektoreak agiri honetan?

Batetik, Sailak berak sustatzen duena: azoketako jarduerak, egitekoak... eta, bestetik, sektoreak berak elkarrizketa, topaketa eta abarren bitartez sortutakoa. Industriaren iritzia zabaltea nahi dugu.

Nola eta noiz hasiko da banatzen?

Aurkezpen-buletin honekin hasi eta gure ideia da hileroko, hil bakoitzeko lehen astean zehar, hain zuzen, sektoreak posta elektronikoko bidez jasotzea. Aurreko hilean zehar egindako jardueren laburpena egin eta hurren hilabeteetako aurreratu ahal izateko aukeratu da data.

Hala ere, sektoreak esku hartzea lortu nahi duen buletina da.

Ez dugu noranzko bakarreko buletina izatea nahi. Gure helburua da sektoreari parte-hartzaile horien esperientziak, praktika onak eta dena delakoak helaraztea da, egiten dena ikus dezaten eta horrek esku hartzera bultzatzen dituzten.

Show cooking delakoak, ardo-galeriak, dastatzeak, misio komertzialak, azoketan egon izana... Sustapen-jardueren dibertsifikatzea, Sailak aintzat hartu duen eta ekitaldi honetan aplikatu duen sektorearen eskaera zen. Zure aburuz, sektoreak ezagutzen dituzten Sailak eskaintzen dituen aukera zabalak?

Sektorean bi talde bereizten dira. Batetik, esku hartu ohi dutenak eta, bestetik, eta gehienak, bere kabuz egin edo internazionalizazioan dihardutenak, eta uste dugu azken horiek direla Sail honetatik garatzen diren ekintza anitzak ezagutzen ez dituztenak.

Elkarrizketa...

Jakin badakigu une ekonomiko zailean gaudela, baina berriz ere esan nahi dugu une txarrek aukera berriak eskaintzen dituztela. Badakit nahikoa dutela egoera honi aurre egitearekin, eta enpresa guztiek behar berberak ez dituztenez, hobetzearen alde lan egiten dugu egunero, enpresen beharretara moldatzeko ahaleginak eginez. Enpresa-talde bakoitzari kanpo-sustapena eskaintzen saiatzen gara, dagoeneko egiten dutenei, hasi direnei eta planteatu ere planteatzen ez dutenei. Baina hori egin ahal izateko, zer behar duten jakin behar dugu. Horregatik, oraindik kanpo-sustapenari ekin ez dioten enpresak lehen urratsa ematera eta gurekin harremanetan jartzera animatu nahi ditugu, proiektua baloratzerik izan dezagun. Kontuan izan behar da kanpo-sustapena guztiona dela, ez bakarrik enpresa handiena.

Urtea amaitzeko hiru hilabetera, zer-nolako balantzea egiten duzu garatutako sustapenaz? Zeintzuk izaten ari dira emaitzak?

Ekintza gehienak garatu dira, dagoeneko, eta balantzearen zirriborroa egin ahal dugu. Emaitzak poliki-poliki ematen dituzten ekintzak dira, elkarri gehitzeko urrats txikiak. Iraupen-estrategia da, hemendik bizpahiru urtera jasotzeko ereitea, ereiten ez duenak ez duelako inoiz bilduko. Zentzu honetan, aldekoa da balantzea.

Zure ustez zein izan da lorpen nagusia?

Kontua da lanaren bitartez eta etengabeko ahaleginaz eskuratutako lorpen txikiak batzea. Aldeko balantze honen oinarria da enpresen ekintzetako esku-hartzeak ez duela behera egin, enpresa gehiago gehitu direlako eta gehienek errepikatu egin dutelako.

Eta autokritika eginez, zein izan da punturik ahulena?

Esperientziak zertan hobe dezakegun esaten dugu. Orain arte, eskaintzen genuena sektore osorako zen, orokorra. Egun, behar ezberdinetara hobeto moldatu nahi dugu. Baina, sektorearen beraren kritika konstruktiboen hutsunea sentitzen dugu. Egia esan, egiten ditugun inkestak erantzuten dituzte, baina kritika konstruktiboaren alderdia falta zaigu, Sustapen Plana eraikitzen hasteko proposamenak eta irtenbideak helaraztea, alegia.

Datozen urteei begira, norantz doa Euskadiko elikagai eta edarien sustapena?

Oraintxe bertan 2012ko Sustapen Plana prestatzen ari gara, eta sektorearen laguntza behar dugu hausnarketan esku har dezan, orientabideak eman diezazkigun. Sail gisa eta, Merkataritza Ganbarekin batera, hartu behar dugun norabidearen nolabaiteko ideia badugu, baina sektorearekin alderatu nahi dugu, berretsi, eta beharrezkoa izanez gero, zuzendu. Datozen urteetako sustapenak

funtsezko bi gako ditu: merkatuak eta ekintzen formatuak. Izan garen merkatuen aldeko apustua egiten jarraituko dugu datozen urteotan, merkatu helduak direlako eta gure produktuen kontsumoa garrantzitsua delako. Hobia dute eta beren aldeko apustua egiten jarraitu behar da. Halaber, merkatu berriak aztertzen ari gara beste ekintza batzuekin sartzerik dagoen jakiteko. Gure helburua da urriaren amaierarako Plana edukitzea eta azaroan sektorearen zabalkundea egitea, enpresek berariazko sustapen-plana egiterik izan dezaten eta gureak beren enpresa-planaren osagarriarena egin dezan. ■


“Gure helburua da sektoreari esperientziak helaraztea, egiten dena ikus dezaten eta horrek parte hartzera bultzatzen. Egunero lan egiten dugu enpresen beharretara egokitzearen alde”

Irekitako deialdiak



ProWein

Egunak: 2012ko martxoaren 4tik 6ra
Sektorea: Ardogintza
Lekua: Dusseldorfeko Azoka Esparrua (Alemania)
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Urtean behin
Izena emateko epea: 2011ko urriaren 10a



Gourmeten Klubaren Nazioarteko Azoka 2012

Egunak: 2012ko martxoaren 5tik 8ra
Sektorea: Kalitateko eta gama altuko elikagai eta edariak -gourmet/delicatessen-
Lekua: Madrilgo IFEMA Azoka Esparrua (Espainia)
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Urtean behin
Izena emateko epea: 2011ko urriaren 17a



Alimentaria Barcelona 2012

Egunak: 2012ko martxoaren 26tik 29ra
Sektorea: Elikadura produktuak eta edariak
Lekua: Bartzelonako Fira -Gran Vía esparrua (Espainia)
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Bi urtean behin
Izena emateko epea: 2011ko urriaren 17a

Hurrengo misio komertzialak

Euskal Herriko elikagai industriako 30 enpresa inguru izango dira lehendakariak AEBetara egingo duen enpresa-bisitan.

Lehendakariak urrian Ameriketako Estatu Batuetara egingo duen enpresa-bisita baliatuz, Euskal Herriko elikagai industriako 28 enpresak hartuko dute parte, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin batera, New Yorken eta Washingtonen egingo diren hainbat sustapen-jardueratan.

New York

- Saltoki eta inportatzaileengana *walking-tour*-a.
- Euskal Herriko elikadura industriaren *show room*-a.
- Aurkeztutako produktuen *uztartze-bazkaria*, helmugako herrialdeko prentsa espezializatuarentzat.



Washington

- Saltoki interesgarrietara *walking-tour*-a.
- Prentsa espezializatuarentzat *show room*-a.
- Parte hartzen duen Euskal Herriko elikadura industriaren produktuen *uztartze-bazkaria*.



Harrera ofiziala lehendakariarekin:

Euskadiren turismo-eskaintzaren eta Euskadiko elikadura industriaren aurkezpena.

Parte hartuko duten enpresak:

- Elikadura sektoreko 15 enpresa
- Ardogintza sektoreko 13 enpresa

San Frantzisko

'Worlds of Flavor'-en babes



Azaroan, Euskal herriko elikadura industriako hainbat produktu izango dira San Frantziskon,

Basque Culinary Center (BCulinary) Fundazioaren lankidetzarekin, AEBetako gastronomia-kongresu nagusietako bat den 'Worlds of Flavor'-en babesari esker.

Culinary Institute of America-k antolatutako gastronomia-biltzar horretan, bertara eramandako euskal produktuak prestatzeko erakustaldia (show cooking) egingo dute hiru euskal sukaldaririk.

www.worldsofflavor.com



Hurrengo azokak



Egunak: 2011ko urriaren 4tik 6ra
Sektorea: Itsasoko produktuak eta produktu izoztuak
Lekua: Vigoko Azoka Institutua
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Urtean behin
Erakusmahai instituzionala: Euskal Herriko 10 enpresa
www.conxemar.com



Egunak: 2011ko urriaren 8tik 12ra
Sektorea: Elikagai eta edariak
Lekua: Kolonia (Alemania)
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Bi urtean behin. Sial-Paris-ekin txandakatuta
Erakusmahai instituzionala: Euskal Herriko 13 enpresa
www.anuga.com



Egunak: 2011ko urriaren 19tik 21era
Sektorea: Fruituak eta barazkiak
Lekua: Madrilgo IFEMA Azoka Esparrua (Espainia)
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Urtean behin
www.ifema.es/ferias/fruit

Egindako azokak



Pro Wein

Egunak: 2011ko martxoaren 27tik 29ra
Sektorea: Ardogintza
Lekua: Dusseldorfeko Azoka Esparrua (Alemania)
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Urtean behin
Erakusmahai instituzionala: Euskal Herriko 25 enpresa

Ekintza: ProWein

Sara Martinez, Zuazo Gaston upategietako (Oion, Araba) export manager-a

“Nazioarteko ardo azoka onena da, serioena eta profesionalena, eta askoz ere negozio handiagoa dago. Inongo azoketara joatekotan, azoka horretara joaten dira inportatzaileak”.

“Pozik nago Eusko Jaurlaritzaren erakusmahaiarekin. Esportazio kontuetan hasiberriak diren enpresentzat askoz ere erosoagoa da bi erasmusmahairen formatua; gu bezala esportazioan aritzen garenontzat, berriz, Esportazio Saila dugula eta ingelesez kasu egin diezaiegegula azpimarratu beharko lukete kokalekuan eta katalogoan”.



Gourmet azoka

Egunak: 2011ko apirilaren 11tik 14ra
Sektorea: Kalitateko eta gama altuko elikagai eta edariak
Lekua: Madrilgo IFEMA (Espainia)
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Urtean behin
Erakusmahai instituzionala: Euskal Herriko 41 enpresa

Ekintza: Gourmeten Klubaren Nazioarteko Azoka

Gontzal Esteban, Añanako gatzaren arduraduna (Añanako Gatz Harana Fundazioa- Araba)

“Euskadiren erakusmahaiaren egotea kalitate eta berme marka da, zaila da zure kabuz joatea. 2011n izan ginen lehen aldiz Gourmeten azokan, eta sekulako bultzada izan zen kanpoko merkatuari begira: Alemania, Italia, Ingalaterra, eta Japoniako, Arabiar Emirerri Batuetako eta Hego Amerikako kontsumoa. Harremanetan hasi ginen kanaleko banatzaile nagusietan bigarren den HO.RE.CA.-rekin, eta produktu berri bat atera genuen: txokolatea oliba olioarekin eta Añanako gatzarekin, ‘Kakao arimarekin’”.

“Gourmet azokak sal likidua probatzeko balio izan zigun. Produktu, erabilera, irudi, kalitate eta merkatu gisa probatu genuen. Jatetxeek gustuko izan zuten, eta salgai jarri genuen”.

...eta honako hauetan ere izan gara...

Show Cooking-etan

Euskal Herriko ostalaritza eskolen **lankidetzarekin.**

Non: Gourmet Klubaren 2011ko Nazioarteko Azokan eta 2011ko European Seafood Exposition-en.



Idiazabal gatzaren dastatzea web orrian

Non: Gourmet Klubaren 2011ko Nazioarteko Azokan.

Egindako azokak

Seafood



Egunak: 2011ko maiatzaren 3tik 5era
Sektorea: Arraina (transformazioa, prozesatzea, banaketa eta salmenta)
Lekua: Parc de Expositions de Bruselas (Belgika)
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Urtean behin

Ekintza: European Seafood Exposition

Edorta Aizkorreta, Bacalaos Alkortako gerentea (Elgoibar – Gipuzkoa)

“Lau urtean izan gara horretan, eta interesgarria da. Leku ona da bezero eta banatzaileekin harremanetan jartzeko, eta askoz ere errazagoa eta erosoagoa da erakusmahai instituzionalean egotea. Gainera, jende gehiagorekin egoteko modua ematen du, eta aukera gehiago sortzen dira. Ziur gaude Eusko Jaurlaritza joango ez balitz gu ere ez ginatkeela joango. Nagikeria handia emango liguke; garraioa, erakusketak...”.

Fenavin



Egunak: 2011ko maiatzaren 10etik 12ra
Sektorea: Ardogintza
Lekua: Ciudad Realeko Azoka Esparrua (Espainia)
Izaera: Profesionala
Maiztasuna: Bi urtean behin
Erakusmahai instituzionala: Euskal Herriko 13 enpresa

Ekintza: Fenavin

Onditz Eizagirre, Talai Berri txakolinaren salmenta arduraduna (Zarautz – Gipuzkoa)

“Talai Berri Txakolina eta Luberri konpetentzia gara, baina baita osagarriak ere. Erakusmahai bikoitz batean elkarrekin egonda, elkar ezagutu eta erreferentzia gehiago ditugu nazioan eta nazioartean. Kostuak berdinak dira, baina elkar elikatzen dugu. Azken batean, Luberri edaten duenak Talai Berri ere edaten du”.

“Antolaketa oso ona da, hitzorduei eta ardo galeriari dagokienez; bezeroak azkar ikus dezake, eta nahi duenean gelditu. Fitxarekin, erakusmahaira jotzen du, eta begi bistakoa da horra doana lanera doala. Jakin beharra dago epe ertainera ez dela emaitzarik ikusten, baina azokan egon beharra dago”.

...eta honako hauetan ere izan gara...

Ardo galeria

Arabar Errioxako ardoen eta erakusgai dauden upategietako txakolin dastatzea. Ardoak azalpen-fitxa batekin daude ikusgai.

Sommelier batek informazioa eskaini eta zalantzak argitzen ditu.

Non: Gourmet Klubaren 2011ko Nazioarteko Azokan.



Egindako azokak



London Fair

Egunak: 2011ko maiatzaren 17tik 19ra

Sektorea: Ardogintza

Lekua: Excel London, Victoria Docks (Erresuma Batua)

Izaera: Profesionala

Maiztasuna: Urtean behin

Luxenburgeko euskal astea

Egunak: 2011ko ekainaren 27tik uztailaren 2ra.

Jarduera:

- Inaugurazioa, prentsarentzako bazkari eksklusibo batekin.
- Enpresek produktu freskoak, kontserbak, ardoa eta txakolina eraman zituzten.
- Sukaldaritza-programa.
- Karta finkoa, egunero hainbat aholkurekin.
- Produktu eta ardo dastatzeak taldeentzat.

Lekua: Luxemburg erdialdeko Sofitel Grand Ducal hotela.

Bertaratutakoak: produktu inportatzaileak eta erosketa ordezkariak.

Parte-hartzaileak: Euskal Herriko 17 enpresa.

Jasotako prestakuntza

Txina Plana (2010-2012)

Mintegia: Nekazaritza eta elikadura produktuak Txinako merkatuan nola sartu eta finkatu.

Eguna: 2011ko ekainaren 7a.

Lekua: Eusko Jaurlaritza. Lakua II. Vitoria-Gasteiz.

Izaera: Profesionala.

Hizlaria: Mónica Li, MONLI ASIA INTERNATIONAL S.L. nazioarteko aholkularitza-enpresako zuzendaria.

Parte-hartzaileak: Euskal Herriko 25 enpresa.

Egindako misio komertzialak

Alemania eta Suitza



Egunak: Zürich (2011ko maiatzak 30) eta Frankfurt (2011ko maiatzak 31)

Jarduera: Arabar Errioxako ardo, txakolin eta gourmet produktuen erakusketa. Mintegiak eta koktelak

Izaera: Profesionala

Parte-hartzaileak: Euskal Herriko 29 enpresa

Ekintza: Misio komertziala Alemanian eta Suitzan

Eric Marie Bruno Gauthier,
Bodegas Viñaspral, SL-ko zuzendari nagusia
(Elvillar – Araba)

“usko Jaurlaritzaren misio komertzialetan parte hartzeak babes instituzionala ematen digu, eta horrek garrantzia ematen dio ekintzari, bezeroekiko aurrez aurreko saioan. Garbi dago upategi txikien baliabide urriekin geuk bakarrik ezingo genituzkeela egin misio horietan egiten ditugun harremanak; Eusko Jaurlaritzaren babesik gabe, ezinezkoa litzateke. Arabar Errioxatik urrun zaudenean are zailagoa da, eta ekimen hauek atek zabaltzen dizkigute”.

Londres eta Dublin



Egunak: Londres (2011ko ekainak 14) eta Dublin (2011ko ekainak 15)

Jarduera: Arabar Errioxako ardo, txakolin eta gourmet produktuen erakusketa. Mintegiak eta koktelak

Izaera: Profesionala

Parte-hartzaileak: Euskal Herriko 26 enpresa

Londresko eta Dublingo misio komertziala

‘Euskal Herriko 30 enpresak ardoa eta txakolina sustatuko dituzte Erresuma Batuan eta Irlandan’,

Diario de Noticias de Gipuzkoa,
2011ko ekainaren 12a



Bisita hauek izan ditugu...

Txakolinaren eta Arabar Errioxaren alderantzizko misioa - Alemania

Egunak: 2011ko otsailak 9-12, 16-19 eta 23-26.

Parte hartzen duten upategien jabeen eta Arabar Errioxan espezializatutako Alemaniako parte-hartzaileen arteko dastatze irekia.

Bertaratutakoak: Sektoreko Alemaniako 30 profesional.

Parte-hartzaileak: Arabar Errioxako ardoen eta txakolinaren 31 upategi.



Gainera...

Buletin Informatiboa jasoko duzu hilabete hasieran, honako gai hauei buruzko informazioa biltzen duena:

- *Aktualitatea*
- *Deialdiak*
- *Jardunaldi eta ikastaro interesgarriak*
- *Hedabideetako presentzia*
- *Euskal Herriko ardoen esportazioak (OeMV)*
- *Sustapenerako laguntzak*



Irakizunen postontzia

Zure iritziak, beharrak eta abar jakin nahi ditugu...

elikagaiensustapena@ej-gv.es

Bisita gaitzazu...